

## GOBERNU BATZARRA

2017 06 26

<b>Alkatea:</b>	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko ekainaren hogeita seian, 08:00etan, Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
<b>Olatz Peon Ormazabal</b>	
<b>Zinegotziak:</b>	
<b>Patxi Amantegi Zubiria</b>	
<b>Nerea Letamendia Belloso</b>	
<b>Jokin Azkue Arrastoa</b>	1.- Aurreko akta onartzea.
<b>Iñigo Alonso Sarasibar</b>	2.- Tolosa C.F.-eko eskubalio sailari dirulaguntza nominatiboa.
<b>Beh. Beh. Idazkaria:</b>	3.- TAO zerbitzua emateko kontratua luzatzea.
<b>Karmele Contreras Goikoetxea</b>	4.- Samaniego ikastetxeko goiko aldean dagoen kirol guneko irisgarritasuna obrak adjudikatzea.
<b>Kontuhartzaitza:</b>	5.- San Esteban 20an dagoen lokalaren erabilera zesioa. Popeye txaranga.
<b>Ainhoa Molinos Zubiaurre</b>	6.- 33-34/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak.

### **1.- Aurreko akta onartzea.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2017ko ekainaren 19an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

### **2.- Tolosa C.F.-eko eskubalio sailari dirulaguntza nominatiboa.**

Tolosako Udalak, herritarren intereseko jarduera kontsideratu du Tolosa C.F.eko eskubalio sailak igoera fasea Usabalen antolatzea, elkartearen proiektiorako aparteko aukera eskaintzen duela aitortuz. Udalak gainera, instalazioak uztearekin batera jarduerak sor ditzakeen gastuen zati bat diruz laguntzeko konpromisua hartu du.

Bi mila eta hamazazpiko apirilaren 25eko osoko bilkuran, Tolosako Udalak, kiroleko diru laguntzen ordenantzak onartu ditu, besteak beste, jarduera berezietarako diru laguntzen

oinarri eta irizpideak barne direlarik. Jardueren izaeraren arabera, laguntza modu honetara banatu daitezke:

- 1) Norgehiagoko erregimenean, Ez dira sartuko 1500€ edo gutxiagoko gastu-aurrekontua duten jarduerak.
- 2) Lehiarik gabeko erregimenean, Espainiako txapelketako azken faseak edo parekoak antolatzeko dirulaguntzak.

Lehiarik gabeko erregimenaren ildotik, izendatua izango da Tolosa C.F-eko eskubaloi saila, 2016ko maiatzaren 27tik-29ra, ohorezko zilar mailara igotzeko fasea antolaketagatik.

Antolatzaileak aurkeztutako dokumentazioa ikuskatu ondoren adierazten da, beharrezko memoria eta gainerako agiriak zuzenak direla, besteak beste, diru-sarreraren kapituluak, Udalaren diru-laguntza alde batera utzita, aurkeztutako likidazioan gastuen %50 estaltzen duela, gutxienez.

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- TCF-eko eskubaloi sailari 5.000€-ko diru-laguntza ematea.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontutzartzaitzari, Kirol departamentuari eta interesatuari.

### **3.- TAO zerbitzua emateko kontratua luzatzea.**

Sociedad Gertek, Sociedad de Gestión y Servicios, S.A.-rekin 2013ko ekainaren 28an kontratu administratiboa sinatu zen, hain zuzen ere, aparkamendu zerbitzua emateko bide publikoan, ordutegi kontrolarekin erregulatutako zonetan.

Aipatu kontratuaren iraupen epea lau urtekoa zen, beste 2 urtez urtero luzatzeko aukerarekin.

Udaltzain buruak, 2017ko ekainaren 19an, txosten bat egin du kontratu hori luzatzearen alde.

Horregatik guztiagatik, Trafiko batzordeak egindako proposamena kontuan izanik erabaki honetako azalpen atalean jasoa dagoen diktamena ikusirik, Gobernu Batzarrak, aho batez eta Alkatetzak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.**- Luzatzea Sociedad Gertek, Sociedad de Gestión y Servicios, S.A.-rekin 2013ko ekainaren 28an sinatutako kontratua, hain zuzen ere, aparkamendu zerbitzua emateko bide publikoan, ordutegi kontrolarekin erregulatutako zonetan.

**BIGARRENA.**- Luzapenaren epea urte batekoa izatea, hau da, 2018ko ekainaren 28ra arte.

### **4.- Samaniego ikastetxeko goiko aldean dagoen kirol guneko irisgarritasuna obrak adjudikatzea.**

Gobernu Batzarrak, 2017ko maiatzaren 15ean egindako bileran, honako espediente hau onartu zuen: Tolosako Samaniego Ikastetxeko goiko aldean dagoen kirol guneko irisgarritasuna obrak kontratatzeko

espedientea.

Lizitazio epean, honako hauek aurkeztu dira:

- UZTURPE ERAIKUNTZAK, S.L.
- CONSTRUCCIONES VDA. DE GARMENDIA, S.L
- CONSTRUCCIONES ECHAIDE, S.A.

2017ko ekainaren 9an, udal teknikoak egindako txostenean proposatu adjudikazio Construcciones Echaide, S.L., enpresaren alde egitea.

Horretan oinarrituta, 2017ko ekainaren 12ko 1057 zenbakidun Dekretuaren bidez, Construcciones Echaide SA enpresari eskatu zitzaion 3.538,42 euroko fidantza jartzeko.

Ekainaren 21ean, fidantza jarri izanaren dokumentazioa aurkeztu zuen enpresak.

Horregatik guztiagatik, kontuan harturik orain arte azaldutakoa, eta Sektore Publikoko

### **4.- Adjudicación de las obras de "Accesibilidad de la zona de deportes superior del edificio de Samaniego Ikastetxea" de Tolosa**

La Junta de Gobierno, de fecha 15 de mayo de 2017, aprobó el expediente para la contratación de las obras de "Accesibilidad de la zona de deportes superior del edificio de Samaniego Ikastetxea" de Tolosa

Durante la licitación se han presentado los siguientes lidiadores:

- UZTURPE ERAIKUNTZAK, S.L.
- CONSTRUCCIONES VDA. DE GARMENDIA, S.L.
- CONSTRUCCIONES ECHAIDE, S.A.

Mediante informe, de fecha 9 de junio de 2017 el técnico municipal propone como adjudicatario a la empresa Construcciones Echaide, S.A.

En base a ello, mediante decreto nº 1057 de fecha 12 de junio de 2017, se requiere a la empresa Construcciones Echaide, S.A., la presentación de la fianza por importe de 3.538,42 euros.

En fecha 21 de junio presenta la documentación referida.

Por todo ello, teniendo en cuenta lo expuesto en la parte expositiva, y de conformidad al

Kontratuen Testu Bategineko 151.4 artikulua xedatutakoaren arabera, eta Hirigintza batzordeak jauldi duen diktamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

artículo 151.4 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, la Junta de Gobierno, a propuesta de la comisión informativa de Urbanismo, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Lizitazio-egintza baliokotzat jotzea eta Construcciones Echaide, S.A., enpresari adjudikatzea Tolosako Samaniego Ikastetxe goiko aldean dagoen kirol guneko irisgarritasuna obren kontratua, hurrengo era honetan:

- Prezioa: 85.629,78 € (BEZa barne).
- Egiteko epea: hilabete.

Adjudikazio honen oinarri izan dira udal teknikariak egindako txostena, kontuan harturik lizitatuzaileek aurkeztu dituzten eskaintzak ordena honetan:

### EMPRESAREN IZENA

Construcciones Echaide S.A.....  
Uzturpe Eraikuntzak, S.L.....  
Construcciones Vda. de Garmendia, S.L.

**BIGARRENA.-** Aurkeztu diren lizitatuzaile guztiei adjudikazioa jakinaraztea.

**HIRUGARRENA.-** Kontratua formalizatzeko hamabost baliodun eguneko epea jartzea, lizitatuzaileei adjudikazio hau jakinarazi zaien egunetik hasita.

**LAUGARRENA.-** Kontratuaren formalizazioa kontratatuzailearen profilean argitaratzea, berrogeita zortzi eguneko epearen barruan, esleitzen denetik kontatzen hasita.

## ACUERDA

**PRIMERO.-** Declarar la validez del acto de licitación y adjudicar a la empresa "Construcciones Echaide, S.A., el contrato para la ejecución de las obras de ""Accesibilidad de la zona de deportes superior del edificio de Samaniego Ikastetxea" de Tolosa, en los siguientes términos:

- Precio: 85.629,78€ (IVA incluido).
- Plazo de ejecución: 1 mes

Dicha adjudicación se realiza en base al informe emitido por el técnico municipal teniendo en cuentas las proposiciones presentadas por Las empresas licitadoras en el siguiente orden:

### PREZIOA

85.629,78 (BEZa barne)  
94.371,19 (BEZa barne)  
96.337,32 (BEZa barne)

**SEGUNDO.-** Notificar la adjudicación a todos los licitadores.

**TERCERO.-** Establecer que el contrato se formalizará dentro de los 15 días hábiles desde la notificación de la adjudicación a las empresas licitadoras.

**CUARTO.-** Publicar la formalización del contrato en el perfil del contratante, dentro del plazo de cuarenta y ocho días, contados desde la fecha de la adjudicación.

## 5.- San Esteban 20an dagoen lokalaren erabiliera zesioa.

Kultura departamentutik proposatu dute Popeye Txaranga Elkarteari San Esteban Auzoko 20an udalak duen lokala erabilera zesioan uztea. Zesio honen belburua elkarteak bertan entsaioak egitea da.

Hau kontutan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### ERABAKI DU

**LEHENA**.- Klean Txaranga Elkarteari San Esteban 20an Udalak duen lokala prekariozko izaeran uztea bertan entsaioak egiteko.

Epea: Prekario izaeran izango da zesioa, gehienez ere urte bateko iraunpena, hiru urte gehiago luzatzeko aukerarekin.

**BIGARRENA**.- Zesioa doainekoa izatea finkatzea. Urtean aktuazio bat dohainik egingo du.

**HIRUGARRENA**.- Zesiodunaren kargura izango dira Elektrizitate kontsumo ur, gas eta gainerako gastuak.

**LAUGARRENA**.- Alkateari ahalmenak ematea kontratua sinatzeko.

## 6.- 33-34/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak.

Kontuhartzaitzak **33/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **120 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda aztertirik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### ERABAKI DU

**LEHENA**.- **33/2017** faktura-zerrenda onartzea.

**BIGARRENA**.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

.....

Kontuhartzailtzak **34/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **271.441,91** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **E R A B A K I D U**

**LEHENA**.- **34/2017** faktura-zerrenda onartzea.

**BIGARRENA**.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailtzari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.**

**ALKATEA**

**Beh. Beh. IDAZKARIA**